

URRETXU-ZUMARRAGA / Liburuak plazara

MIRIAM LUKI

Nazioarteko egunek zerbaiteko balio ote duten galdetuta erantzun bat baino gehiago eman daiteke. Aldekoek elkartasuna edo arreta toki jakinetan jartzeko aukera ematen dutela esango dute. Kontrakoez egun batean zenbait gauza gogora ekartzea ez dela nahikoa, oparotasunaren gizarteen artifizioak direla esango dute, artifizio baliagarriak hustutako balio sistema bat mantentzeko. Liburuei datorkie orain txanda. Liburuaren Nazioarteko Eguna apirilaren 23an da, eta Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna astelehenean, hilak 12.

Urretxuko eta Zumarragako udalek Liburuak plazara! egitasmoa antolatu dute aurten ere. Egitasmoaren barruan ipuin kontaketa eta liburu azoka herrikoia izango dira. Liburuak plazan izango dira hortaz. Ipuin kontaketen bitartez haurren artean irakurtzeko zaletasuna sustatzea da xedea. Liburu azokarekin etxetik liburuak atera eta trukatzeko aukera izango dute herritarrek.

Nazioarteko egunik gabe ere, Zumarragako liburutegiak 3.341 bazkide baditu, horien artean 1.157 hamalau urte arteko haurrak. Urretxuko liburutegiak 812 bazkide ditu eta horietatik 362 haurrak dira. Zumarragak 10.324 biztanle ditu 3.341 familiatan banatuta udalaren webgunearen (www.zumarraga.net) arabera. Urretxuko biztanle kopurua 6.957 lagunekoa da, 2.200 bat familiatan.

Datuek azaleratzen dute ez duela jende guztiak irakurtzen, nahiz eta irakurtzen dutenek seguruenera asko irakurtzen duten. Nabarmena da, bestalde, azken urtean Urretxun eta Zumarragan irakurle taldeek izan duten arrakasta. Euskaraz eta gaztelaniaz talde bana ari da une honetan. Euskarazko taldeko kideek Bernardo Atxagaren Zazpi etxe Frantzian eleberria irakurri zutenean Atxaga bera etorri zen solasaldira, eta taldeei buruz honakoa esan zuen: "Ez da irakurleak bakarrik sentitzen direla, baizik eta irakurritakoa besteekin partekatzeko grina dutela.

Nazioarteko egunek aitzakia moduan funtzionatzen dute azken batean. Irakurtzea gustuko ez dutenak ez dira irakurketara emango halako egun batengatik. Irakurle direnek irakurtzen jarraituko dute ordea. Egunaren aitzakian liburuak kalean, plazan, ikusiko dira eta, beharbada, hori besterik ez da benetako zentzua.

EGITARAUA

Etzi. Maite Arrese ipuin kontalaria Zumarragako udal liburutegian izango da, 18:00etan.

Hilak 22. Ixabel Milletek Kamishibai ipuin janponiarrak kontatuko ditu Urretxuko liburutegian, 18:00etan.

Hilak 23. Liburu azoka Areizaga-Kalebarren enparantzan; herritarrek eta liburu-dendek parte hartuko dute, 17:00etatik 20:00etara.